

**BIZIAN GORA NOA
GERO ETA GORAGO,
ZENBAT ETA GORAGO
POZAGO NAGO.**

"Hona Bildots ezta"

1

Eup! Bizian Gora
deika barriro;
maitasun bidean
beti da giro.

2

Hementxe bete naz
bizi-balorez,
eta beteten naz
pozez ta adorez.

3

Jakin dot Jainkoak
maite nauala,
horrek bixkortu deust
bihotz makala.

4

Betiko lanetik
naz jubilatatu,
nik bide barri bat
nahi dot bilatu.

5

Nire zahartzaroan
hau da suertea!
Mundiala zara,
Jesus maitea!

6

Benetan Jauna da
eskuzabala,
ni ahula naz baina
Bera leiala

7

Hemen ikasita
ondo dakigu:
Jaunak nahi gaitula
bere testigu.

8

Ez dakizu ondo
zer poz daukagun:
Jauna betirako
da gure lagun.

9

Bakotxak berea
dogu aukera,
jagi eta goazen
pozik aurrera.

10

Danagaitik, Jesus
eskerrak mila!
Artzain ona, zatoz
gaur nire bila.

A. Martzel